




**TOKIKO AGENDA 21en 2. JARDUERA PLANA
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN 2020**

Trapagarango Udalak tokiko agendaren 2. jarduera plana aurkeztu du. 2011n, iraunkortasunaren diagnosis egin zuten, eta bertan, hiritarrek parte hartzeko 4 foro, udaleko langileekin 2 mahai tekniko eta udalerriko agenteekin zenbait bilera egin zituzten, eta, ondorioz, jarduera-eremuak identifikatu zituzten. Ildo beretik, 2012an hasiera eman zitzaion 2. jarduera-planaren idazketari, aintzat hartuta IHOBek argitaratutako "EAEko udalerrien Tokiko Agenda 21eko Jarduera Planen berrikusketarako metodologia-gida".

2. jarduera-planaren prestakuntzarako iraunkortasunaren diagnosiaren emaitzak hartu dira oinarritzat. 5 mahai tekniko egin dituzte, eta jarduera-ildoak eta -programak identifikatu dituzte, baita aurrera eraman beharreko jarduerak ere. Behin-behineko agiria arduradun politikoei aurkeztu zitzaion 2012ko abenduaren 10eko informazio-batzordean.

IKUSPEGIA

2020an, herritarrek udalerriarekiko kidetasun sentimendua dute, ingurune atsegin eta kohesionatu batekin gozaten dute, tokiko ekonomia dinamikoa, berritzailea eta ingurunearekin errespetutsua da, eta hiritarrek iraunkortasun-irizpideekin jarduten dute.



HELBURUAK

1. Prestakuntza eta lana hobetzea.
2. Udalerraren beraren nortasuna sustatzea, eta gizarte- eta kultura-beharrei erantzutea.
3. Biztanleek etxebizitzaren arloan dituzten beharrei erantzutea.
4. Udalerrri iraunkorragoa egitea, energiaren eta ingurumenaren arloetan.
5. Hiritarrentzako udalerrri atseginagoa sustatzea.



HITZ GAKOAK

1. Lana.
2. Nortasuna, kultura, kidetasun sentimendua.
3. Iraunkortasuna eta energia-eraginkortasuna.
4. Etxebizitza.
5. Ingurune atsegina eta kohesioz beterikoa.
6. Ohitura iraunkorrak dituzten hiritarrak.
7. Hiri-antolamendurako plan orokorra.

ILDO ESTRATEGIKOAK

1. IE- Udalerriko nortasuna sustatzea.
2. IE - Hiri-espazioaren kalitatea areagotzea, eta mugikortasun iraunkorra erraztea.
3. IE - Baliabide naturalen kudeaketa naturala sustatzea, eta klima-aldaketaren eragina murriztea.
4. IE - Tokiko garapen ekonomikoa sustatzea, eta lan-sorrera bultzatzea.
5. IE - Hiritarren bizi-kalitatea hobetzea, arlo hauetan: etxebizitza, hezkuntza eta berdintasuna.
6. IE - Udalerrrian gizarte- eta kultura-garapen iraunkorra sustatzea.
7. IE - Udala sentsibilizatzea eta haren parte-hartzea areagotzea, iraunkortasunaren arloan.